

## UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK

### Generative Playground: LLMs made Easy (1. ED.)

#### INFORMAZIO OROKORRA

---

**IKASTURTEA:** 2024/2025

**ARLOA:** Ikasketa Teknikoak

**KREDITUAK:** 2,00ECTS (\*) kreditu

**MATRIKULA TASA:** 270,00 € (Asegurua 4,00 €)

**ARDURADUN AKADEMIKOA:** Ander Barrena Madinabeitia

#### AURKEZPENA

---

Ikastaro honen helburua hizkuntza-eredu erraldoiak ikuspegi praktiko batetik ulertzea eta programatzen jakin gabe erabiltzea da. Parte-hartzaileek eredu GPT4o bezalako eredu pribatuak eta LLaMa3 kode irekiko ereduak erabiltzen ikasiko dute. Jorratuko diren gaien artean, prompt engineering, agenteak, chatbot-ak, sorkuntza areagotuko ereduak (RAG) eta hizkuntza naturala prozesatzeko beste aplikazio batzuk izango dira. Ikastaroan gogoeta etikoak azpimarratuko dira, besteak beste, hizkuntzaren alborapena, informazio konfidentzialaren erabilera arduratsua eta inplementatutako ereduaren ebaluazioa.

#### ZURE BILA GABILTZA

---

Gaur egun hain erakargarriak diren Hizkuntza Eredu Erraldoiak (GPT4o edo LLaMa3) ulertu eta erabili nahi dituen ikasle, langile eta ikerleriei zuzendua. Programazioa jakitea ez da beharrezkoa izango alde praktikoa aurrera eraman ahal izateko.

#### BALDINTZAK

---

Behar-beharrezkoa ez bada ere, gomendagarria da OpenAI ChatGPT Plus-en harpidetzea, laborategi batzuk osatzeko.

#### IRAKASKUNTZA

---

**HASIERA ETA AMAIERA DATA:** 2024/10/14tik 2024/10/18 ra

**EMATEKO TOKIA:** Birtuala

**HIZKUNTZA:** Ingelesa



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO  
PRESTAKUNTZAREN ARLOKO  
ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE POSGRADO Y FORMACIÓN  
CONTINUA

## **INFORMAZIOA/ IZEN-EMATEA**

---

**SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA:** HiTZ zentroa

**HELBIDEA:** Rafael Moreno Pitxitxi 3 – 48013 BILBAO

**TELEFONOA:** 946 01 4323

**POSTA ELEKTRONIKOA:** amaia.lorenzo@ehu.eus / olatz.arregi@ehu.eus

**(\*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.**